

DBH2 PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Maitane Suarez Lesaca	Maila	2.DBH	Ikasturtea	20/21
-----------	-----------------------	-------	-------	------------	-------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Plastika eta ikus-hezkuntza ikasgaia derrigorrezkoa da.

Astean bi saioko ikasgaia da.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1	2	3						
1) Hizkuntza komunikazioa.	X								
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	X								
3) Gaitasun digitala.		X							
4) Ikasten ikastea	X								
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X						
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X						
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.		X	X						

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

Ikasgaiaren edukiak **bi bloke nagusietan** banatzen dira: **adierazpen plastikoa eta marrazketa teknikoa.**

Lehenengo blokean, alde batetik, ikusizko mintzairaren oinarrizko zeinuak (puntuak, lerroa eta planoak) lantzen dira konposizio mota ezberdinetan: Betty Edwards-en metodoa lantzeko jarduerak, oinarrizko gorputz geometrikoen irudikapena, desitxuraketak... Eta bestetik, ehundurak eta kolorea lantzen diren hainbat jarduera egiten dira.

Bigarren blokean, marrazketa teknikoaren lantzeko tresnak eta hauen erabilera ezagutzearekin batera, geometria lauaren oinarriko elementuak eta eraikuntzak ikasiko dira. Amaitzeko, poligonoen sailkapen, ezaugarri eta trazadura landuko dira.

Skolae-ko jarduerak: "Aintzindariak" jarduera abiapuntutzat harturik, hainbat ariketa landuko dira.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

DBH CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
21	GEOMETRIA LAUA	24	BEHATZEA ETA MARRAZTEA	16	KOLOREA
11	Oinarriko eraikuntzak	7	Betty Edwards-en metodoa	4	Zirkulu kromatikoa
10	Poligonoak	6	Oinarriko gorputz geometrikoak	6	Kontrastea
		3	Argi-itzalak	6	Artelan piktoriko inpresionista
		4	Desitxuraketa		
		4	Ehundurak		

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

1. Irakasleak gaia azalduko du eta adibideak ikusiko dira.
2. Gaia barneratzeko ariketa txikiak egingo dituzu.
3. Gaia menperatzen duzun jakiteko ariketa praktikoa egingo duzu gelan.
4. Lana entregatu irakasleak ezarritako egunean kalifikatu dezan.
5. IK/KI arabera taldekatzea (4naka).

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Mintegiko programazio didaktikoan ikusgai. BON

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluatze tresnak:

- 1) Ebaluaketa bakoitzean egindako lan praktikokoak.
- 2) Kontrolak.
- 3) Jarrera.

Jarduera bakoitza ariketa proposamenaren bidez aurkeztuko zaizu, argi izan dezazun zein helburu dituen, nola egin, zein material eta zenbat denbora duzun bukatzeko. Irakasleak entrega data jarriko ditu. Egun bat berandu entregatzeak puntu baten jaitsiera ekarriko du, atzerapena handiagoa bada epe kanpo entregatutakoak berreskurapen trataera jasoko du. (gehienez 5) Jarduerak berreskuratzeko aukera izango duzu 15 egunetako epearen barruan.

- Ikasgaia gainditzeko, landutako jarduera guztiak **aurkeztuak** egon behar dira.
- Jarrera kontuan hartuko da ebaluaketako kalifikazioan: erakutsitako interesa, ahalegintze maila, talde lanetako partehartzea, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua, materiala

zaintzea,...

- Lanerako beharko duzun materiala egunero ekartzea ezinbestekoa da, behin eta berriz ahazteak interes faltaren erakusgai hartzen dira.

KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA 1.Unitatea: Geometria Laua. (Beste azterketaren bat eginez gero berdin kalifikatuko dugu)	AZTERKETAK % 20 Batezbestekoa egin ahal izateko gutxieneko nota 3,5 da	LAN PRAKTIKOAK %60 Gelako lanetan batezbestekoa egin ahal izateko gutxieneko nota 4 da	JARRERA %20
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA Azterketa egiten ez denean gelan egindako lanak eta jarrera hartzen dira kontuan.		LAN PRAKTIKOAK %80 Gelako lanetan batezbestekoa egiten ahal izateko gutxieneko nota 4 da	JARRERA %20

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

-Ebaluazioa gainditzeko:

Lanak: berregin akatsak zuzenduta eta epe baten buruan eman. Gehienez 5eko nota lortu ahal da.

-EKAINEAN ikasgaia gainditzeko, ikasturtean zehar egin diren lan guztiak aurkeztu behar dira. Azterketa Globala kurtsoan landutako gaien inguruan izanen da; Azterketa egiteko ariketa guztiak entregatu beharko dira. Ebaluazio bat suspenditurik izan ez gero bakarrik ebaluazio hori berreskuratu beharko da, 2 baldin badira azterketa globala egingo da. Ekaineko gehieneko nota 5a izango da.

-**Ohiko deialdian** gainditzen ez baduzue, **Ohiz Kanpoko Azterketa** egin beharko duzue. Honetan, azterketa egiteaz aparte, irakasleak errekerperatzeko emandako ariketak eginda emanen duzue.

Azken nota honela sortuko da:

%70 kurtsoan egindako lanen nota eta %30 azterketaren nota, beraz, lanen eta azterketaren batez bestekoa. Beti ere atal bakoitza gainditu bada.

-**Ohiz kanpoko** deialdian nahitaezkoa da azterketara aurkeztea. Gehienezko nota 5 izanen da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ikasgai hau ez da ebaluazio diagnostikoan ebaluatzen.

MATERIALAK

Hauek dira ikasturtean zehar egunero beharko dituzun materialak:

Apunteak

Eskuaira eta Kartaboa, Erregela eta Konpasa

Pilot beltza

3H eta HB arkatzak

2. ebaluaziotik aurrera:

Koloretako arkatzak

Urkoloreak eta Errotulagailuak (Irakasleak adieraziko dizu noiz erosi behar dituzten)

Guraizeak

Itsaskina

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.